

ESPERIENTZIAK-EXPERIENCIAS / SIDRA-SAGARDOA / SIDRERÍAS-SAGARDOTEGIAK

Probaketak martxoan 2013, kata gidatuak sagardotegietan.

LEIRE - 11/03/2013 · 15:29

Sin comentarios



Arrakasta handia izan dute Sagardoaren Lurraldeak antolatuta otsailean ospatu diren IV. **probaketek** eta **martxoko** egutegia sagardotegietako afariekin uztartu ahal izango diren kata eta sagardozaleentzako **dastaketa berriekin** dator.

Egutegia:

Egoitz Zapiain-ek gidatuta, **martxoaren 2an Astigarragako Zapiain Sagardotegian** izango da probaketa. Familiei zuzenduriko katak amaituta, Zapiaingo eskaintza sagardoa dastatzen ikasi nahi duten sagardozaleei zuzendua dago.

Martxoaren 16an Usurbilgo Saizar Sagardotegian izango da probaketa. Proposamena sagardo bakoitzaren berezitasunak bereizten ikasi nahi dituen sagardozaleei zuzendua dago eta dastaketa Fernando Vadillo enologoak zuzenduko du.

Zapiain eta Saizar sagardotegietako dastaketa gidatuen eta pintxoaren prezioa 10€ da pertsonako eta goizeko 11:00etan hasiko dira bi dastaketak.

Bestalde, afariekin uztartzeko aukera emango duten probaketak ospatuko dira **martxoko aste azken guztietan Astigarragako Gurutzeta Sagardotegian**. Gurutzetaren eskaintzak upeltegiko arduradunek zuzenduriko sagardo dastaketan hastapena eskaintzen du. Gainera, asteazkenetan Gurutzeta sagardotegiko afarietan otxoteak izaten dira giroa alaitzeko. Dastaketa gidatuaren eta pintxoaren prezioa 10€ da pertsonako eta dastaketa gidatua eta sagardotegiko afaria 30€ da pertsonako.

Hurrengo hilabeteetan probaketak Zelaia (Hernani), Txopinondo (Azkaine), Gaztañaga (Andoain), Bereziartua (Astigarraga) eta Saizar (Usurbil) sagardotegietan izango dira.

Informazioa eta izen-emateak: Telf: +34 943 550 575 / info@sagardoarenlurraldea.com

Tags: cata guiada, Gurutzeta, kata gidatuak, probaketak, sagardotegia, Saizar, sidrería

Anterior post

Cross Popular "Sagarlasterra" el 23 de febrero. Cross Popular "Sagarlasterra" el 23 de febrero. "Sagarlasterra" Herri Lasterketa otsailaren 23an. Cross Popular "Sagarlasterra" el 23 de febrero.

Siguiente post

Marzo 2013: Sidras de Bereziartua y Txopinondo para degustar en Sagardoetxea. Marzo 2013: Sidras de Bereziartua y Txopinondo para degustar en Sagardoetxea. 2013ko martxoan: Bereziartua eta Txopinondo sagardoak dasta daitezke Sagardoetxean. Marzo 2013: Sidras de Bereziartua y Txopinondo para degustar en Sagardoetxea.

Tu comentario / Zure komentarioa

Sagardoaren Lurraldea



Kale Nagusia 48
20115 Astigarraga
t: 00 34 943 550 575
f: 00 34 943 559 575
info@sagardoarenlurraldea.com
www.sagardoarenlurraldea.com

RSS Feed
Twitter
Facebook

Categorías

- Azokak-Ferías
- Besteak-Otros
- Ekitaldiak-Eventos
- Espertentziak-Experiencias
- Formazioa-Formación
- Gastronomia-Gastronomía
- Kultura-Cultura
- Lehiaketak-Concursos
- Museos-Museoak
- Sagarra-Manzana
- Sagastia-Manzanal
- Sidra-Sagardoa
- Sidrerías-Sagardotegiak
- Sin categoría
- Turismo-Turismo

Post Recientes

-  Maiatzak 11, probaketa Bereziartua sagardotegian.
-  Musika giroa alaitzeko udaberriko giro paregabean.
-  6.000 bisitari inguru izan ditugu Aste Santuan Sagardoaren Lurraldean.
-  Euskal Sagardoaren Museoa eta Santiagomendi ingurua, "Euskadiko Biodibertsitatea" ekimenaren hurrengo naturguneak.
-  IV. Sagar Martxa ospatuko da igandean Hernanin.